

# BATXILERGOA

**teknologikoa A eta D ereduak**  
**humanistikoa A eredua**

# HEZIKETA ZIKLOAK

**Goi eta erdi mailak**  
**A eredua**

**Informatika**  
**Elektrizitatea**  
**Merkataritza**  
**Administrazioa**  
**D ereduan ere!**

# MATRIKULA

**Ekainaren 29-tik uztailaren 6rarte (barne)**

**Lehendakari Agirre 184 Tfnoa. 944028000**




[www.elorrieta-errekamari.com](http://www.elorrieta-errekamari.com)

2007ko ekaina  
 100. zkia. Doan

Rapa Nui uharterea

El Refugio

Sumendi



100 zenbaki  
 argazkitan



**Koldo Callado**

*"Buruko gaixotasunen gainean asko falta zaigu jakiteko"*



*Begoñako Errepublikako plaza (1900)*

*Goiko argazkia 1900an eginda dago, Begoñako Andra Maria koroatu eben urtean. Koronazinoa itzelezko ospakizuna izan zan, bere esangura politiko eta guzti. Izan be, eskuindar eta jeltzaleak izan ziran gehien sakatu ebenak eta ezkertiarrek -sozialista eta errepublikazaleak- kontran agertu ziran. Edozelan be, Begoñan bertan jai handia izan zan irailaren 8an. Besteak beste, herriko plazan arkuak ipini eben, argazkian ikusten dan legez, 'Begoñak bere ama maitiari' leloagaz.*

Argazkia Aristides Artiñanoren 'Coronación de Nuestra Señora de Begoña' liburutik hartuta dago, Foru Liburutegiak itzitako aletik hain zuzen.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Rapa Nui .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta euskerea .....	8	▶ Mendia: Tresdedos .....	25
▶ Sumendia .....	10	▶ Hezkuntza: I.A. Eskola .....	24
▶ El Refugio .....	12	▶ Deabru Beltzak .....	28
▶ Elkarrizketa: Koldo Callado .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Bizitzen gitxitten kontaten dogu gauzek zenbet biderrez egiten doguzen, neuk bez, baie Bertonekoak esan dostie, hau ehungarrena da, orduen, 100 biderrez egin dogu hau presentaziñoa. Ehun biderrez Bertonek zer dakarren kontaten, ehun biderrez "hemen zer ostia ipintten dau?" pentsau daurie batzuek, ehun biderrez Bertonek leidu, eta ehun biderrez istoridxe estranbotikoak kontau.

Ehun biderrez egin dogu bardine, baie ez da istoridxe bera ixin ehunotan. Oingoan be ez.

Temak atzera ta aurrera eukin doguz jantzan, oin bueltan baino ez datoz: Abasolokoa, Santutxuko festak, Deabru Beltzak... ingurumarien dekoguna hor dago betik, baie egunetik egunera kanbidxau eitten da, eta haxe ixiten da kontatekoa, Bertonekoak ehun biderrez ein dauriena.

Beste batzuk hemen egon bai, betik, lehenagotik, kanbidxau gitxi, kendu iguel, joan. Hareik be ehun biderrez etorri direz hona, kantxa emon doskue haren barri jakittek. El Refugio lez. Akordura ekarri bestelan 97koakaz oingoan egin dan modure.

Lagunek be asko, portadan ehun daborduko, portadatik aparte ehun ta..., eta Bertoneka ekarteko ehun mile ondiñoarren. Bost biderrez ehun garaun gordeko ei deittuz oingo medikuek, baie bost biderrez ehun pentsamendu, akordu, burutaziño ta eritxi baino asko gehidxago bota direz hamen ehun biderrez.

Banan-banan etorri direz batzuk, beste batzuk tropelien, ehun edo mila biderrez batuten direz asko euren gogoak plazara ekarteko, juntau, pentsau, bota, ibili... Sumendikoak oingoan, larogitte hemeretzi gehiagonak ekarri direz, eta ehun ta larogittehemeretzi mila gehidxago dabilz, edo ibiliko direz juntaten, ta ekinien.

Total, ehun biderrez errepetidu da zikloa, askorek pentsauko eurien buelta bakarra emongo zeuela. Ingeruen dekogune, danari aittuteko ehun bider gitxi direz, barrez!

Ta hau entendidu ez dabenak leidu deidxela Bertonek ehun biderrez, edo ehun Bertonek.

Orduen meritue zein ixin dan entendiduko dau.

**Firmatue:** Ehun biderrez egin dauen bardine ta ehun biderrez preguntau dozune



Begoñako eleizateko Bolueta aurkintzan topatu geinke Ibarsusi bidea, Atxuritik Durangora doan trenbidearen ondo-ondoran, eta gero batu egiten daz Otxarkoagako bidea eta Zumalakarregi etorbidea, Etxebarriko udal mugartearen mugamugan.

Toki-izena 'ibar' izenari jagoko, eta aurkintza orlegi baten isla erakusten deusku; izan be, ibar hori Ibaizabal errekaen ondontan ikusi geinke. Beti be, badago beste aztarna bat, ezin ahaztu geinkeana; horretara, bada, Begoñako eleizateko 1865eko agiri

baten egiaztatu geinke baegoala aro haretan baserri bat, Ibarsusi izenekoa.

Historiak, sarri-askotan, erakusten deusku zein jakitunak ziran gure aurrekoak. Hareek ez eukien ordenagailurik, ez eukien ezer, baina lurrari bene-benetan egozan lotuta. Horrela ikusi geinke Euskadiko zazpi lurraldeetako herri euskaldun guztietan.

GOTZON LOBERA REVILLA



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta.:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarrondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Dabi Piedra,  
Itxaso Perez  
Ane Zabala

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Berto Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz


ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Ane Zabala  
LEGE GORDAILUA:  
BI-85-98  
ALE KOPURUA:  
2.000

2007ko ekaina - 100. zkia.

# Uharte misteriotsua, argitara

Jabier Les espeleologoak Rapa Nuiko argazki sorta ederra dakar liburu baten

*Munduko uharterik apartatuena da Rapa Nui, Pazkoa izenaz ere ezagutua, Ozeano Bareaz inguratuta. Hurbileneko lurraldeak 4.000 kilometrotara dauzka. Bertako bizilagunak, paisaiak eta lur azpiko unibertsoa argazki liburu eder baten bildu du Zabalbideko Jabier Les espeleologoak.*




Jabier Leseke BERTONeko 91. zenbakiko azalean agertu zen eta bertan Pazkoa uhartera itzultzekotan zegoela jakinarazi zuen. 2005ean lehenengo espedizioa antolatu zuen -Alfonso Antxia espeleologia zientzien elkarteko arduradun gisa eta 2007an atzera be joan dira. Datorren urtean beste espedizio bat egingo dute.

Espeleologia Euskal Herriko eta Iberiar Penintsulako kobazulo asko bisitatuta dago, baita Kuba eta Dominikar Errepublikako aitzulo ugari ere. Hurrengo urratsa, ostera, urutiagora joateko egin zuen. "Orain dela hogeitau urte ere bagenbiltzan Rapa Nuiren gaineko informazioa batzen. Guretzat erronka itzela zen, uharte isolatua delako, bere lur azpiko mundua ikaragarri aberatsa delako eta gu lehenengoak izan nahi genuelako", azaldu du Jabier Leseke. "Ametsa zen bertara joatea".

Rapa Nui Txileri dagokion uhartea da. Ozeano Pazifikoan dago, Txiletik eta Tahititik 4.000 kilometrotara. Bere biztanleak noiz eta nondik heldu ziren argitu barik dirau. Hipotesi baten arabera, duela mila urte iritsi ziren Marquesas uharteetatik. Erabateko isolamenduan bizi izan ziren harik eta XVIII. mendean holandar barku bat bertara ailega zen arte.

Gaur egun Rapa Nuin 3.000 bat lagun bizi dira. Urtean beste 20.000 heldu ohi dira turista gisa egun batzuk emateko bertan. Unescok Gizateriaren Ondare gisa dauka, hala bere monumentuengatik -moai ospetsuak- nola bere kulturagatik.



#### LAU ATAL

Liburuak lau atal dauzka, 2007ko espedizioan egindako argazkiez beteta. Lehenengoak Hotu Matu'a erregearen legenda kontatzen du, Rapa Nuira zelan heldu ziren alegia.

Bigarrenak tatuaiak dauka hizpide, isolamenduaren ondorioz estilo propioa garatu dutelako. Bertan, dantza erri-tualetako irudiak sartu dituzte. "Dantzaldi horietan zeharo aldatzen dira, trantzean sartuko balira bezala", argitu du Leseke.

Hirugarrenak paisaiari eskaintzen dio protagonismoa, bere txikian -16km x15 km- Rapa Nuik kontraste handiko parajeak biltzen ditu eta: moai monumentuak, labarrak,

sumendiak,... Eta azkenik, lur azpiko mundua.

Izan ere, lurpeko unibertso hori "zeharo ezezaguna zen eta lehenengoz agertu dugu", kontatu du Leseke. Labazko tunelak, kobazulo itzelak, formazio ezezagunak -estalaktika mota berri bat topatu dute-, ... "mundu ikusgarria da", laburbildu du Zabalbidekoak.



Espedizio biek emaitza politak ekarri dituzte, alderdi horretatik. "Lan gatxa izan da, egunean zazpi-zortzi ordu kobazuloetan sartuta", aitortu du Jabier Leseke. Behar esker ga horri esker 6,6 kilometroko lur azpiko galeria sorta topatu dute, "Txileko kobazulo sistemarik handiena alegia".

#### FINANTZAZIO BILA

Bertan, besteak beste, hogeitau aztarnategi eta bederatzi eskeleto aurkitu dituzte espedizio-kideek. Txileko arkeologoek aztertu barik zeukaten eremua da eta, Zabalbidekoaren iritzi-z, "materialak uharterako jendearen jatorria zein den jakiteko garrantzi handikoak izan daitezke".

Esan bezala, 2008an itzultzekotan daude. Espedizio horretan orain arteko espeleologo eta geologoen gain, txiletar arkeologoak ere izango dira. "Eta finantzazio bila gabiltza espedizio horretan dokumentala grabatzeko", iragarri du.

Liburuak 128 orrialde dauzka eta txukun editatuta dago. Argazki guztiak kolorez eginda daude eta 'Rapa Nui. La tierra de Hotu Matu'a' izenburupean argitaratu dituzte. Testuak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dakartza. Lesekekin batera Urtzi Uriarte eta Gaizka Carretero dira argazkilariak.



# BEGOÑA ETA EUSKEREA

1997ko uztaila gogor-gogorra izan zen Euskal Herrian. Gertakizun mingarri asko kateatu ziren bata bestearen atzetik eta eragin kaltegarria eduki zuten gure artean. Ermuko zinegotzi Miguel Angel Blancoren hilketaren ostean bortizkeria zabaldu zen.

## UZTAILEKO ASTE LAZGARRI HURA

Hilabete lazgarria izan zen 1997ko uztaila. Aurreko asteak ere nahikoa mugituta izan ziren: Ortega Lara eta Cosme Delclauxen bahiketak, HBko zuzendaritzaren kartzelaratze ahalegina, disper-tzioa, torturak,... Baina eztanda uztailaren 10ko bahiketak eragin zuen. ETak Ermuko zinegotzi Miguel Angel Blanco (PP) bahitu zuen eta euskal presoak Euskal Herrira ekar-tzea eskatu zion Espainiako Gobernuari, 48 orduko epea ezarrita. Hurrengo orduetan hedabideek eta alderdi politikoek Hego Euskal Herriko eta Espainiako herritarrak mobilizaziora deitu zituzten. Manifestazio multzotsuak egin zituzten, batez ere Bilbon. Baina Gobernuak ez zion erantzunik eman ETaren eskaerari eta uztailaren 12ko arratsaldean hilzorian topatu zuten Blanco. Euskal Herriak astindu ikaragarria sentitu zuen. Ordu batzuk geroago hil zen.

Tentsio handiko orduak izan ziren, beldurgarriak. Igandean hileta elizkizunak egin zituzten Ermuan eta

arratsaldez manifestazioak herri gehien-gehienetara zabaldu ziren. Tentsioak bortizkeriari bide eman zion. Domekan bertan hasi ziren erasoak, jipoiak, asaltoak, leherketak, irainak, jazarpenak,... ezker abertzaleko kide eta lokalen kontra lehenengo eta, azkenean, euskal kutsuko egoitza eta pertsonen kontra oro har. Mendekurako deia zabaldu



**Cientos de personas se concentran frente a radicales en el recinto festivo de Santutxu**  
Miles de manifestantes se congregaron en Barakaldo para protestar contra la violencia de ETA.

**Se intensificaron los incendios y agresiones**  
Numerosas sedes sociales de HB fueron atacadas con impunidad y presencia policial. Gestiones a los partidos del Pacto y algunos medios de comunicación. Amenazas a cargos públicos ilustradas.

**los linchamientos**  
Numerosas agresiones. Varias duras de batida de ETA en un barrio de Euzkaldunak.

**Egin eta El Correon agertutako berriak**

zuten Victoria Prego espainiar kazetariaren 'A por ellos!' aldarri famatuarekin.

**GUREAN**  
Hedabideek eta politikari asko

xaxatuta, herritar multzo handiek euren legea ezarri nahi izan zuten kaleetan, polizia guztien pasibitatearen -laguntza ez bazen- aurrean. Domekan bertan Bilbon manifestazio jendetsua egin zuten Blancoren hilketara salatzen eta, ostean, multzo handi batek HBren egoitza (Astarloa kalean) setiatu zuen.

Ostean, Zazpi Kaleetako Herriko Tabernara jo zuten eta ondoren, Josu Ortuondo alkatari jaramonik egin barik, Santutxuko Herriko Tabernara igo ziren. Bertara heldu eta eraso jo zuten barruan zeudenen kontra. Santutxuko jaiak ere 'leherterazi' nahi zituztela azaldu zuten.

Horrez gain, Udaletxe ondoko taberna batetik pertsona batzuk babestuta atera behar izan zituen Ertzaintzak, jendetzak lintxatu nahi zituelako. Gau hartan, ordubiak aldera, su eman zioten Urribarriko Herriko Tabernari.

Astelehenean erasoak areagotu ziren. Arratsaldeko azken orduan manifestariak Herriko Tabernara hurreratu ziren eta eraso egin zuten. Ertzaintza agertu bazen ere, ez zuen lokala babestu. Ikurriña kentzen ere ahalegindu ziren protestan zetozenak. Ostean, Ertzaintzak ezker abertzaleko ehun bat lagunena kontra kargatu zuen. Ondoren, manifestariak Iturriaga kaletik jaitsi ziren eta Basarrateko jai eremura asaltatu zuten. Txosnetan zeudena ihesi atera behar izan ziren. Manifestariak euren atzetik joan ziren Boluetarantz. Euzkaldunak batzuk Union Begoñesan harrapatu eta jipoitu zituzten. Txosnak erais-

**Deia eta El Correon izan ziren berriak**



**LA CALLE CONTRA E**  
ULTIMO ADIOS A MIGUEL ANGEL BLANCO

**JAIAK**

Uztailaren 15ean, martitzenean, arratsaldeko zortziak aldera, zortziehun bat lagun agertu ziren Iturriaga kaletik Basarrateko jai eremura heltzeko asmoz. Herriko Tabernatik igaro ziren lehenengo baina itxita zegoen. Bezperan ez bezala, jai eremua ez zegoen hu-

**Miles de personas se enfrentan a jóvenes radicales y asedian las sedes de HB**

La Ertzaintza evitó el linchamiento de varios simpatizantes de la coalición en Bilbao



Un portavoz de la Ertzaintza...

tsik, txosnen gerizan ehunka lagun zegoen eta. Ertzaintza multzo bien erdian paratu zen, baina erasotzaileei begira jarri beharrean, jai eremuko jendearen kontra apuntatzen zuten euren armek. Jai Batzordeko ordezkariak manifestazio baimenik ez zegoela salatu zuten eta jaiak bakean egiteko eskubidea gogorazi zioten Ertzaintzaren buruzagiari. Alferrik. Manifestariak ordu-bete egin zuten han jendea mehatxatzen, eszenatokiko elektrizitate hornidura eteten eta jai eremura sartzeko ahaleginak egiten. Polizia autonomikoak txosnetako gazte bat atxilotu zuen. Azkenean, manifestariak alde egin zuten.

Une goibelak izan ziren. Gogorrak, hitsak. Interes ilunek Santutxuko jaiak euren jo puntuan jarri zituzten. Eta hurrengo bi egunetan ere, gainerako bazter guztietan urak bare zeudenean, Basarrateko manifestazio haiek errepikatu ziren. Gero eta jende gutxiagorekin, gero eta indar txikiagoarekin. Desagertu ziren arte. Azken bariku, zapatu eta domeka normaltasunean joan ziren.

**Halderapeko euskal kultur gunea**  
www.halderapeko.com  
txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99

BERAZ  
NEZ  
GON  
GON  
GON

BERAZ  
NEZ  
GON  
GON  
GON

# SUMENDI ELKARTEA, OSASUNAREN AUTOGESTIOA

## SOLOKOETXETIK OSASUNGINTZA ALTERNATIBOA SUSTATZEN DU



*Orain dela bi urte Larrinaga kalean finkatu zuten euren egoitza, baina euren ibilbidea orain dela hogeitau urte baino gehiago hasi zen. Ordutik, bizimodu hobea, eta ondorioz osasun hobea izateko euren proposamenak zabaltzen ibili dira, azken mendean medikuntza ofizialak egin duenaren aurkako alternatibak eskaintzen.*

Testua: Nerea Aburto. / Argazkiak: Iñigo Azkona

Sumendikoek osasuna gero eta bizitza autonomo, ekologiko, goxoago eta elkartasun handiagokoa eramatea dela aldarrikatzen dute. Medikuntza tradizionalak azken mendean zabaldu duen dinamika farmakologikoaren ordeztu, osasunaren autogestioaren aldekoak dira. Sumendiko bazkide den Robert Núñezek hitzetan: "Persona bakoitza bere gorputzaren jabe den heinean, gorputza entzuten ikasi beharko luke eta momentu bakoitzean gehien komeni zaiona erabaki". "Gure gorputza gehiago entzungo bagenu, gutxiago jan, gehiago deskantsatu, ingurunea zaindu...egingo genituzke, ondorioz gure bizimodua eta osasuna hobetuz", gehitu du Antonio Palomarrek, Sumendiko sortzailetariko bat.

Osasunaren autogestioa korrante askotan oinarritutako filosofia da, batez ere, XIX. mendean Estatu Batuetan sortutako higienismoa eta XX. mendean Ivan Illich idazleak gizarteko estamentuei egindako kritiken ondorioz sortutako mugimendua. "Higea greziarren osasunaren jainkosa zen, baina, orduan, gaur egun ulertzen dugunaren ordeztu, osasuna ondo bizitzen jakiteko artea zen, eta ez medikuntzari zegokion zerbait", argitu du Palomarrek.

Idea hauek bildu eta Euskal Herrian ezagunak egin zituenak Bilboko osagile naturista bat izan zen, Eneko Landaburu, Sumendi elkartearen sortzailetariko bat eta espainiar estatuan medikuntza naturistan eta atsedentxeetako aitzindaria. "Landaburuk medikuntza tradizionalak XX. men-

dean hasi zuen farmakologia izugarriari alternatiba bilatu nahi zion, eta horren inguruan hainbeste artikulua idatzi zituen prentsan", kontatu du Palomarrek. Sumendi izango zenaren hazia ereinda zegoen.

### HOGEI URTE

Sumendi 1987an sortu zen elkarte gisa, batez ere antzera pentsatzen zuten pertsonen bilgunea izateko eta haien lehenengo ekintzak atsedentxeen inguruan antolatuta zizuten. "Lehen atsedentxeak Iparraldean egon zen eta han izandako egonaldiaren ondoren sortu zen Sumendi. Bere lehen helburuetariko batzuk topaleku bat izatea eta aisialdia osasuna zaintzen gure bitartean emateko aukera sortzea ziren", gogoratu du Antonio Palomarrek. Iparralde-



koa eta gero, Irungo etxea etorri zen eta horrekin batera Bilboko lehen lokala. 1987an, beraz, osasun eskola honi hasiera eman zitzaion eta ordutik, tailerrak, hitzaldiak eta solasaldiak antolatuta izan dituzte, euren helbururik nagusienari erantzun nahian: pertsonen euren osasunaren ardura hartzea.

90ko hamarkadarak Sumendiren garairik onenak ekarri zituen "inoiz baino militantzia eta boluntario gehiago zeudelako. Ohiko ekintzez eta atsedentxeek gain garai horietan berrehun pertsona inguru biltzen zituzten aste beteko jardunaldiak ere antolatzen genituen." Palomarrek, behin eta berriz aipatzen dituen atsedentxe hauek arrakasta horren arrazoia nagusietariko bat izan omen ziren: "Bertan jendeak liburutatik ezagutzen zuena esperimintatzeko aukera zuen. Hasieran jendea gaixotasunak sendatzeko joaten zen, baina pixkanaka beste ikuspegi zabalago bat garatu eta etxeetara begetarianoak, naturistak, ekologistak... hurbildu ziren." Sumendik orduan bere bazkide kopurua zabaltzen joan zen eta Bilboko taldeaz gain, beste batzuk sortu ziren: Donostian, Durangon, Getxon, eta Madrilen, adibidez."

Gaur egun Bilbokoak baino ez dirau, orain dela bi urte zabaldu zuten Solokoetxeke lokalean, eta beherakada honetan gizartearen aldaketak zerkusirik ere badu. "Ziurrenik Bilboko tal-

dea iraunkorra izan da beti bertan profesional gehiago mugitu izan garelako. Hala ere, guk ere gure krisialdia jasan dugu eta orain irten egin dugula esan daitekeenean, 1992 urtean kale-ratu genuen manifestua berrikusten gaude. Kontutan hartu behar da elkartearen sortu zenean oso jende gaztea ginela denok eta agian erromantizismo gehiegirekin mugitzen ginela."

### BIZITZEKO EREDUA

Baina, krisia izanda ere, Sumendi elkarteak "mistizismo eta espiritualitate gabeko" bizitzeko filosofia ezberdina aldarrikatzen jarraitzen du, azken urteetan jaio diren bizitza osasuntsuagoaren aldeko modekin batera biziraun behar duen bitartean. "Kontrakoa pentsatu ahal izango balitz ere, moden fenomeno hau ez da beti Sumendirentzat onuragarria izan. Terapia eta formula alternatibo guzti hauek jendearen iritzia nahastu egiten dute eta batzutan zaila izaten da modak ez jarraitzea. Baina gizartearen gertatzen den zerbait da, informazio gehiago izateak ez du irizpide hobea izatea ekartzen. Eredu-rik argiena, elikadura eta dieta osasuntsuei buruz inoiz baino gehiago hitz egiten denean, gure aitite-amamek baino txartoago jaten dugula."

Aldiz, Internetek jendearen esku jarri duen informazioak osasunaren autogestiorako ona izan daitekeela uste du Palomarrek: "Orain gaixo batek

bere medikuak beste jakin ahal du gaitz bati buruz interneti esker."

Osasun hobea izateko Sumendikoek aldarrikatzen dituzten ideiak ez daude beste talde batzuek aldarrikatzen dituztenetatik hain urrun eta horregatik osasun publikoaren aldeko mugimenduan kokatzen den Osalde bezalako elkarteekin harreman zuzena izaten dute. Horrez gain, Ekologistak Martxan, Tas-Tas irratia, Avifes edo Haurdun bezalako elkarteekin sarritan kolaboratu egiten dute. Azken hau Sumendiko bazkide ohiek sortutako elkarte da, eta ez bakarria. Hogeitau urte hauek eman dituzten etekinen ondorioa.

### BESTELAKOAK

Hobeto bizitzen ikasteko ideiak eta aholkuak zabaltzen ibili diren urte hauetan, Sumendikoek Urtero antolatuta izan dituzten tailer, hitzaldi eta atsedentxeek gain, hasieran elkartearen buletina zena aldizkari bihurtu eta bi urtez 'Zainduz' argitaratu zuten. Honez gain, Solokoetxeke lokaleko dokumentazio zentroa sortzen joan dira; bertan, osasunerako heziketa, osasun aukerak, globalizazioa eta osasuna, ingurugiroa eta osasuna, sentimenduen heziketa edota kontsumoaren inguruko hainbat liburu aurkitu daitezke. Bertako aleak bazkideen eta kanpotarren esku daude, azken hauek lokalean kontsultatzeko.

# ZABALBIDEKO 'EL REFUGIO' MENDE ETA ERDI BEHAR GORRIENEAN DAUDENEI LAGUNTZEN

KARITATEAREN ANDRE MARIAREN KONGREGAZIOA  
1857AN HELDU ZEN BEGONARA

*Mende eta erdi bete du Zabalbideko El Refugio aterpetxeak 2007an eta, gaur egun, Foru Aldundiarekin duten hitzarmena dela eta, baliabide urriko familietako umeei etorkizun hobea eta gainontzeko haurren antzeko bizimodua eskaintzen diete. Urteko egun guztietan, gau eta egun, lan handia egiten dute baldintza txarretan egon diren sein eta gazteen alde. Euskal Herrira iritsi zenetik, Karitatearen kongregazioak hainbat egoitza izan ditu, baina beti Mahatserriko lurretan egon dira kokatuta.*

**Testua: Dabi Piedra**  
**Argazkiak: Berton**

Dagoeneko mende eta erdi joan da, beraz, El Refugio aterpetxeak eta Mahatserriak bat egin zutenetik. Karitateko Andre Mariaren Batasunaren kongregazioaren jatorria 1641ean, Frantzian, topatuko dugu eta Europako hainbat lekutan egoitzak zabaltzeari ekin zioten, 1857an Euskal Herrira iritsiz. Garai hartako misioa, kalean edo baldintza oso txarretan bizi ziren emakumei lagundu eta aterpea eskaintzea zen,

izan ere Industria Iraultza hasi berriak miseria handia sortu zuen eta batez ere emakumeen baldintzek txarrera egin zuten.

Denborarekin, misio hori aldaturaz joan zen eta gaur ume eta gazteei zuzendua dago: Seme-alabak behar bezala hezi edo mantentzeko girorik edo baliabiderik ez duten familietako haurrak hartzen dituzte Zabalbideko etxean eta bertan ematen diete behar duten guztia.

Arantza Trevillak, kongregazioko buru eta zentroko hezitzaileak, honela dio: "Familiaren antzekoa eman nahi diegu guk, gainontzeko umeek dauzkaten aukera berdinak eskaini, bizitzan aurrera egin dezaten". Seme-alabek jatorrizko gurasoekin kontaktua gal ez dezaten saiatzeko dira, ordea, "azken helburua gure umeak egunen batean beren familia itzuli ahal izatea da". Jaioberrietatik hasi eta hamahi-



ru urte bete arte onartzen dituzte umeak, baina praktikan nagusiagoak ere badaude, hogeni urte ingurukoa baten bat.

Gaur egun, El Refugio aterpetxeak hartzen dituen ume eta gazteak Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez iristen zaizkie. Gizartekintza sailarekin elkarlanerako akordioa dute eta, bide batez, Aldundiaren

laguntza da erakundearen finantzabide nagusia. Hala ere, Karitatearen Andre Mariaren Batasuneko mojek, aterpetxea kudeatzeaz gain, inguruko hotel batzuetako arropa garbitzen dute eta hori ere diru iturri da. Hasierako urteetan, laguntza publikoa urria zenean, gogor egiten zuten behar mojek aterpetxea aurrera eramateko, inguruko nego-

zio eta etxaldeetan lan ugari egin ez.

**BETIDANIK MAHATSERRIAN**  
Orain dela 150 urte, Karitateko Andre Mariaren Batasunaren kongregazioa Euskal Herrira iritsi zenean, mojen egoitza eta emakumeentzako aterpetxea Begoña inguruan kokatu zituzten. Orduetik, Santutxun eta Begoñan

Elektriko eta industrial instalazioak  
Proyectos y Presupuestos  
**J. Ruiz**  
Instalador Autorizado  
\*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones  
\*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo  
\*Porteros automáticos y videoporteros  
\*Aire acondicionado  
Juan de Gissola nº9, Loma 48004 Bilbo - Fax: 944111652 - Tf: 656703853

**BI-96.0-FM**  
Bilbo Hiria irratia  
www.bilbohiria.com

**Agapi**  
Dekorazioa eta eskaiola  
Sabai akustikoak eta eskaio-lazko dekorazio deribatuak  
Jose Migel Barandiaran Alerbe 1, 1. ezk  
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114  
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna  
Iturriaga 96.  
Gosari bereziak:  
Euskal Herria AURRERA!!

Garaizar  
JESUS GAINDEZ, Nº. 10  
Tel: 94 475 012 2005 GARAIZAR - BILBO



bertan hainbat etxe izan dituzte. Gaur egungo egoitzara duela 30 urte inguru aldatu ziren. Zabalbide kalean dago, Txurdinaga eta Arabella artean. Beraz, batetik bestera ibili diren arren, 150 urteotan ez dira Mahatserritik irten.

Zabalbideko egoitzak lau pisuko bi eraikin ditu, elka-

rrekin lotuak eta inguruan lorategi handiarekin. Bertan, umeek behar duten guztia daukate, baina asteburuak eta uda igarotzeko badauzkate beste bi etxe, bata Barrikan eta bestea Burgosko Medina de Pomarren. Gainera, Donostian beste aterpetxe bat dago, kongregazio beraren ardurapean, eta batzuetan ekintzak egiten dituzte elkarrekin.

Urteko egun guztietan seinak "El Refugio"ren ardurapean egoten dira eta, ondorioz, bertako moja zein langileen lana ez da batere samurra. "Bokazio handia behar da hemen lan egiteko", esan du Arantza Trevillak, "irabazten den diruak ez du konpentsatzen, gure saria beste bat da, adibidez hemen bizi izan zen gazte bat guregana bueltatu eta eskerrak ematen dizkigunean". Orokorrean, umeak pozik bizi direla uste du Arantzak, familiatik aparte bizi behar badute ere, El Refugiok ematen dien aukera eskertzen dute. "Umeak ez dira gatazkatsuak, beraiek ez dute arazorik, arazoa beren familiak dauka, ezin dugu ahaztu haurrak normalak direla", ohartarazten dute bertako hezitzaileek. Gainera, aterpetxeko langileek nabaritu duteenez, umeen artean nolabaiteko elkartzuna sortzen da eskolan edo kalean daudenean, "elkar babesten dute, ia familia bereko partaide bailiran".

### OSPAKIZUNAK

Mende eta erdi betetzea ez da ohikoa eta, horregatik, urteurren hori ospatzen ari dira 2007 urtean. Hala ere, ez dute ekitaldi handirik prestatu, ospakizunik onena beti bezala lanean jarraitzea delakoan. 150. urteurreneko azken ekitaldi gisa, Karitatearen Andre Mariaren kongregazioak mundu osoan dituen etxeetako ordezkariekin topaketa egingo dute. Era berean, hitzaldiak, bisitak, bazkariak eta omenaldiak ere antolatu dituzte urtean zehar. Mende eta erdi betetzeaz harro daudela dio Arantza Trevillak, batez ere XIX. mendean eta XX.aren hasieran El Refugion lanean ibili zirenek, baldintza oso eskasetan, gaur egun duten zentro polit eta eroso ahalbidetu zutela gogoratuz. "Garai hartan, mojek lan eskerga egin behar zuten aterpetxean eta hortik kanpo ere bai, diru iturriak lortzeko, eta hori guztia baldintza kaskarretan", aipatu du Arantzak.

Etorkizunerako, baina, aldaketak iragarri ditu Arantza Trevillak. Lehen, mojek egiten zuten hemengo behar guztia, baina gero eta gutxiago dira. Kanpotik datozen langileak ezinbestekoak bihurtu dira gaur egun. "Noizbait laikoek hartu beharko dute honen guztiaren ardura, ziur aski", abisatu du Arantzak, baina aterpetxearen lanari jarraipena ematen zaion bitartean, hori ez dela arazoa uste du. Mojei esker zein laikoiei esker, umeek etorkizun hobeaz zate da garrantzitsuenak.

## hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerria, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: .....

Herria: ..... Herrialdea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

**DOHAIN**

Sinadura

e  
i  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a

## KOLDO CALLADO

*"Buruko gaixotasunen gainean asko falta zaigu jakiteko"*

**Koldo Callado medikua EHUko Farmakologia irakaslea da eta baita ikertzailea ere. Urte asko eman ditu drogak eta buru gaixotasunak aztertzen. Zeregin horretan euskaraz dihardu. Orain 'famatu' egin da buru gaixotasunen ikerkuntzarako**

**giza garunen bankuko arduraduna izango delako. Zabalakoa izatez, hamar urte dira Santutxun bizi dela. Zientziaz eta kirolaz egin dugu berba berarekin, Athleticeko peña bateko presidentea izateko astia ere badauka eta.**




Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona

D  
U  
G  
U  
D  
U  
N  
E  
R  
T  
O  
N

D  
A  
K  
A  
R  
K  
A  
I





horiek bultzatzen dutenak. Adibidez, estresa estu lotuta dago gaixotasun horiekin. Badakigu jakin estresa jasaten dutenen artean pertsona batzuek normal jasaten dutena eta gainditzen dutena eta beste batzuek, oster, gaixotasun sikiatriko bat garatzen dutena. Beraz, bien arteko nahasketa izan daiteke.

dezakete. Lehen esan dudanez, zer edo zer badakigu baina asko falta zaigu. Guk normalean lagin txikiekin egiten dugu lan. Helburua da burmuin osoa izanda aukera gehiago edukitzea mota guztietako ikerkuntzak egiteko eta, ondorioz, askoz ere informazio gehiago erdiesteko.

**Depresioa da proiektuaren helburu nagusia?**

Gure proiektu horretan hiru dira helburu jarri ditugun gaixotasun nagusiak. Alde batetik, depresioa, bestetik eskizofrenia eta, azkenik, trastorno bipolarra esaten zaiona. Azken finean, aurreko bien arteko nahasketa bat da.

**Ondorio praktikoak zeintzuk izango dira? Botikak?**

Mota bikoak izan daitezke ondorio praktikoak. Ahalik eta ondoen jakinda gaixotasun horietako bakoitza zertan datzan lortuko dugu, alde batetik, prebentzioa, hau da gaixo izateko arrisku handien daukan jendearikiko prebentzioa. Gaur egun, esate baterako, badakigu kolesterola maila eta hipertentsioa lotuta daudela bihotz gaixotasunekin eta horren inguruan egiten dugu prebentzioa. Bada, kasu honetan berdin. Zenbat eta gehiago jakinda gaixotasun hauen inguruan, errazagoa izango da arriskuan dauden pertsonekin prebentzioa egitea. Eta gainera, gaixotasuna dutenen artean, jakinda zer dagoen gaixotasun horren oinarrian, botika eragingarriagoak gara di-tzakegu. Horrela, gaixoaren eta bere ingurukoaren bizitza kalitatea hobetuko genuke.

**Noizko egongo da bankua erabilgarri?**

Proiektua duela lau hilabete sortu zen eta dirulaguntza lau urterako dago. Beraz, lau urte barru abian egon beharko da, bai proiektua bera, donazio programa alegia, bai baldintza teknikoak edo protokoloak laginak jasotzen hasteko.

**Eta zenbat urteko ikerkuntza lana ekarriko du?**

Hori kalkulatzeko ezinezkoa da. Guk hogeitau urte eman ditugu horretan eta hortik aterako ditugun emaitzek edo ikerkuntzek urte askotarako balio

**Banku baten jabe egitekotan eizabiltza...**

Kar, kar, jabea barik kudeatzailea izango naiz.

en artean erabaki dugu garun banku zentralizatu eratzeko, gaixotasun neurosikiatrikoei begira. Guk eskarmentua geneukanez, guri egokitu zaigu kudeatzeko ardura.

**Burmuin bankua izango da, garun bankua. Bostehunen bat beharko duzue. Zertarako?**

Hogeitau urte daramatzagu garunak biltzen ikerkuntza egiteko. Gehien bat gaixotasun neuro-sikiatrikoetan lan egiten dugu: depresioa, eskizofrenia, droga menpekotasunak... Urteak dira giza garunak erabiltzen ditugula ikerkuntza horiek egiteko. Orain arte garunak auzi gaietarako medikuen -mediku forentseen- bidez lortu ditugu, akordio baten bidez. Orain nobedadea da Estatu espainolean sortu dela horrelako gaixotasun neurosikiatrikoak ikertzeko sare bat. Sare horretan Estatu osoko hamazazpi talde sartu gara eta egiteko-

**Jakina, horrek esan nahi du buru eritasunen azpian oinarri organiko, fisikoa dagoela...**

Bai, gaur egun zer edo zer argi badugu da gaixotasun hauen oinarrian bada-goela substratu biologikoa. Gaur egun gauza batzuk argi dauzkagu baina beste asko falta zaizkigu. Gaixotasun horien arazoak gehien bat garunean kokatzen direnez, garrantzitsuena da garunean bertan bilatzea aldaketa edo asaldura horiek.

**Horrek zer esan nahi du, holako gaixotasunetan pertsonaren nortasuna edo bizitza ez direla hain erabakigarriak?**

Ez. Seguruenez gaixotasun hauetan biltzen dira alde batetik predisposizio biologikoak gaixotasun horiek agertzeko erraztasunak ematen dituztenak eta bestetik gizarte faktoreak, gaixotasun




**Hogeitau urte daramatzazue ikerkuntzan. Esate baterako, depresioaren azpian zer dagoen jakin daiteke?**

Teoria nagusi bi daude. Batek dio bi sistema edo neurotransmisoreen funtzionamendu txarra dela arrazoia. Sistema noradrenergikoaren eta sistema serotonergikoaren gabeziak. Badirudi hortik sortzen dela depresioa eta gaur egun erabiltzen diren antidepressibo gehienak horretan oinarritzen dira. Gutxituta dagoen neurotransmisio hori bultzatzen saiatzen dira. Beste teoriaren arabera, zenbait aldaketa fisiko gerta daitezke, estresaren garrantzia nabarmentzen du,... baina asko dago oraindik ere argitzeko. Lehenengo eta behin, ez dakigu gabezi horiek gaixotasunaren kausa ala ondorioa diren. Gaur egun arazo horiek tratatzen ditugu baina ez dakigu gaixotasunaren hasieran ala ondorioetan dauden.

Ikertzailea zara, farmakologian diharduzu gehien bat eta cannabis edo kalamuaren inguruan aritu

zara. Hain onuragarria ote da kalamua botika gisa? Kontu konplexua da. Alde batetik, kalamu landareak bere baitan ehunka osagai dauzka. Horietatik %60 kannabinoideak deitzen ditugu eta gaur egun bada-kigu eurentarik zenbat



diren onuragarriak gaixotasunak tratatzeko. Arazoa da landarea eta landarearen osagaiak nahasten ditugula. Kalamua ona den? Osagai batzuk bai, eta gaur egun botika gisa erabiltzen dira. Horrek ez du esan nahi porroak erretzeak eragin onuragarria dakarrenik. Jendeak pentsatzen du: kalamua minarako ona da, bada hamar porro erretzen baditut... ez da hori!

**Batzuek disgustua hartuko dute...**  
Badakit, horregatik nabarmendu dut.

**Zuk ikertu euskaraz egiten duzu...**  
Bai. Printzipioz normala da. Aurkikuntza nagusiak hemen eta munduko bazter guztietan ingelesez argitaratzen dira hori baita hizkuntzarik hedatuena. Baina gure eguneroko harremanak euskaraz egiten ditugu eta ikerkuntza horien dibulgazioa ere euskaraz egiten dugu. Helburua da gure lanaren emaitzak gizareratzea eta erakustea posible dela euskaraz ikertzea.

**Kasu bakarra zarete ala gero eta gehiago dira ikerkuntza euskaraz egiten dutenak?**

Gero eta gehiago hedatzen ari da, batez ere jende berriak gaitasun eta gogo hori badaukalako. Euren ikasketak euskaraz eginda daude. Iaz Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) neurozientziari buruzko ikastaroa antolatu

genuen eta bertan hamabost-hogeitalde ikertzaileetako kideak elkartu ginen. Euskaraz trukatu genituen gure esperientziak.

**Zientzia dibulгатiboa egin izan duzu eta, besteak beste, odol transfusioez eta dopinaz idatzi zenuen 'Operación Puerto' baino askoz lehenago...**

Bai, kar, kar, dezente arinago. Normalean drogak eta droga menpekotasunak lantzen ditugu. Sasoi baten dopinaren gaineko eskolak eman nituen. Euskal Herrian txirridularitza kirol handia da eta orduan oso ezezaguna zen kontu hori...

**Harritu zaitu gero odol transfusioen garapenak?**

Ez. Dopina eta bere inguruko 'zientziak' beti doaz detektatzeko sistemen aurretik. Orduan (1997) jakin bagenekien odol transfusioen sistema bazena eta nahiko zabaldua zegoena. Ostean detektatzeko sistema hobetoak gartu dituzte eta horren ondorioz agerian gelditu da. Baina gauza jakina zen mundu horretan dabilzanen artean eta baita zientzialarien artean ere.

**Kirolarekin jarraituz, Athletic Munduan Zehar (AMZ) peñako presidentea zara. Zientifikoa da athletic-zalea izatea?**

Hemen nahasten dira burua eta bihotza. Eta niretzat bata eta bestea izan behar dira. Zientzia aparte utzita, sentimendu hori txiki-txikitatit daukagu. Gure aititea bazkidea izan zen, baita gure aita ere eta ni neu be banaiz.

Gure semeak kamisetak jantzita doaz. Zientifikoki zaila da azaltzea zelan Bigarren Mailara jaistekotan egon den talde batek mugi dezakeen hainbeste jende. Buruan zientzia dago eta bihotzean sentimendua. Eta biak konpatiblerik dira, jakina.

**Zuena peña berezia da, interneten jaio zen eta...**

Interneten jaiotako lehenengo peña izan zen. Munduan barreiatuta geunden orduan. Ni Londonen, beste batzuk Erroman, Estatu Batuetan, Noruegan, ... eta Athleticen inguruko berriak izateko biderik errazena internet zela ikusi genuen. Batez ere Miamin zegoen Fernandok bultzatu zuen. Eta urte asko pasa eta gero horretan jarraitzen dugu.

**Asko sufritu duzu?**

Bai. Azken finean jokoan zegoena ez zen bakarrik Bigarren Mailara joatea, baita ere 110 urteko historia eta herri oso baten sentimendua. Hori kirola eta interes ekonomikoen gaintetik dago. Sentimendu bat zegoen jokoan eta horregatik egon da jendea hain ardurata. Azkenean denok pentsatzen genuen bezala ezinezkoa zen Bigarren Mailara joatea eta ez da gertatu. Hori ez da inoiz gertatu, beraz, zientifikoki esan dezakegu oso zaila dela inoiz gertatzea, kar, kar.

## Bilbao BBK Live Festibala Artxandan izatea nahiago zenuke?

PATXI  
(SANTUTXU)

BAI, NIK ARTXANDAN IZATEA NAHIAGO DUT KOBETAMENDIN BAINO. HOBETO KOMUNIKATUTA DAGO ETA HORRELA FUNIKULARRA ETA ARTXANDAKO KIROLDEGIA ERABILIKO GENUKE.



AMAIA  
(ABUSU)

NIRE USTEZ HOBE DA BETI LEKU BATEN IZATEA, URTERO BERTARA DOAZENAK HALA NAHI IZANGO DUTE. KOBETAN ONDO DAGO.



GRACI  
(OTXARKOAGA)

BAI, ARTXANDAN ALA ETXEBARRIA PARKEAN IZATEA NAHIKO NUKE.



ZIORTZA  
(TXURDINAGA)

NIRI ETXEBARRIA PARKEAN IZATEA GUSTATUKO LITZAI-DAKE, KOTXE BARIK HOBETO ETA LASAI EDAN AHAL IZATEKO.

YOLI ETA BEGO

(OTXARKOAGA/  
TXURDINAGA)  
ETXETIK HURBIL  
IZATEA GUSTATU-  
KO LITZAIGUKE,  
BERAZ, ETXEBARRIA  
PARKEAN  
EDERTO!



ANA  
(ARBOLANTXA)

BAI, NAHIAGO NUKE FESTIBALA ARTXANDAN ANTOLATZEA BERTARA HELTZEKO MODU ASKO BAITAGO, FUNIKULARRA BARNE.



CLARA  
(TXURDINAGA)

NIK NAHIAGO DUT TXURDINAGAKO PARKEAN IZATEA ARTXANDAN EDO KOBETAMENDIN BAINO.



### Bederatzi galdera labur

Liburua: 'Germinal'  
Pelikula: 'El acorazado Potemkin'  
Kantua: 'Ojalá', Silvio Rodriguezena.  
Lekua: Bilbo  
Izena: Iker, semearena.

Jatekoa: Bakailoa pil-pil erara.  
Hondartza/Mendia: Hondartza gerizpean.  
Kirola: Futbola, jakina.  
Ametsa: Gure seme-alabak Euskal Herri aske baten bizitza.



PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!

SARTU ZURE  
PUBLIZITATEA HEMEN

Telf. 94 473 54 48

### Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Uribarri eta Zurbaran aldeko hiru mila lagunek firmatu dute Abasolo txakolindegia

Abasolo txakolindegia zemaipen bizi da azkenaldion, hondeamakina noiz etorriko zaion zain. Jakina denez, bertan etxeak egin nahi dituzte eta horretarako Uribarri aldeko azken


txakolindegi herrikoa eraitsi behar dute. Auzotarrek, ostera, Abasolok bere horretan segitzea nahi dute eta hiru mila sinadura batu dute dagoeneko.

Testua: *Itxaso Perez*  
Argazkia: *Iñigo Azkona*

Eta gehiago biltzekotan dira udan berrabiatuko duten ekinaldian. Izan ere, inguruko auzoetatik sinatzeko orriak banatuta daude oraindik, eta gehiago eramango dituzte. Herritarrek agerian utzi dute Abasolo jendea elkartzeko tokia dela, bizirik dago eta bitziza soziala sustatzeko lekua dela alegia.

Ekainean, berbarako, inguruetako elkarte batzuek bazkariak egin dituzte bertan, besteak beste, Athleticen garaipena aldeztu aurretik ospatzeko edo. Izatez, txakolindegikoak dira entzutsuenak Botxo osoan golak ospatzen.

Baina badirudi Udaletxean ez direla bolanderak ondo entzuten. Bai Udalarekin baita leku horretan etxeak eraiki nahi dituen duen enpresarekin ere kontaktuak izan dituzte txako-



lindegia eusteko asmoz baina oraindik ez dago ezer argi. Sinduren babesarekin eskatzen dutena da leku hori mantentzea eta zaharberritzea, baita bizi kalitatea hobetzen duen gune berde hau nolabait babestea ere. Eta egia esan apur bat etsita topatu ditugu txakolindegikoak

beraz. Urteetan koadrilen arteko solasaldiak, meriendak porroiren laguntzaz eta lehiaketa asko ospatu dira ia-ia ehun urte dauzkaten zuhaitzen gerizpean: txori kantari, tortilla eta bakailao txapelketak.... horiek ez lukete leku egokiagorik izango.

baita bertako bizilagunak ere, orain gertatzen ari zaiona ez delako berria. Urte mordoa eman dituzte eraikinean inolako konponketa egin ezinik, eraikina aurre arrisku adierazpena zeukalako eta horren ondorioz debekatuta zeukaten ezertxo ere konpontzea. Ezin konpondu, ezin saldu... ezin ezer egin, eta gainera, orain euren buruak kale gorrian ikusteko mehatxua ere etorri zaie.

### LASTER EHUN URTE

Eraikina eta txakolindegia bera 1913 urtetik dago bertan. Historia luzea du,




### UDAKO KULTUR JANTZIAK.-

Bilboko Udalak antolatuta, ekainean kultur ekitaldiak egin dituzte Begoñan, Boluetan eta Santutxun. 'Udako kultur jantziak' izena dauka egitarau horrek eta bigarrenaz eratu dute. Irudian, Begoñan egingako aktuzioetako bat.


### KATIXA AGIRRE, IRAKURLEKIN.-

Ikasturtea amaitu du Asapalaren 'Irakurlearen Tarte' saioak Katixa Agirrerren bisitaldiarekin. Ekainaren 27an azaldu zen Arbideako euskaltegian 'Sua falta zaigu' liburuaz berba egiteko. Argazkian, Katixa, Julen Gabiria eta Uxue Alberdi.



### BERTONEK EHUN ZENBAKI.-

Ehungarrena da esku artean daukazun zenbaki hau, irakurle hori. BERTON jaio zenetik ehun bider heldu da bere harpidedunen etxeetara. la 2.000 etxe gaur e g u n . Ospatzeko, ale honekin batera beste ale berezi bat atondu dugu ehun zenbakiotako argazki hautaketa batekin. On egin!



### UZTAILA

TENERIFE	320,00 Euro
LANZAROTE	438,00 Euro
MALLORKA	441,00 Euro
MENORKA	323,00 Euro
IBIZA	445,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

**Izargi Bidaiak**  
GRUPO STAR  
www.ibiltari.com  
48004 SANTUTXU - BILBO



**ADI**  
ASESORIA  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL  
ARABIC - MERCANTIL  
Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak  
kontabilitatea juridikoa  
merkatalgintza**

## BIDAIK ERATZEKO TAILERRA.-

Datorren urrian Begoñako udaltegiak Bidaiariaren Txokoa esperientziari segida emango dio. Bertara bidaiari ospetsuak eramango dituzte euren esperientziak kontatu dituzten baina, horrez gain, bidaiak antolatzen ikasteko tailerra antolatuko dute, euskaraz. Sei euroko prezioa edukiko du eta urriaren 2an hasiko da. Gainera, irailaren 14 arte postal lehiaketan parte hartzeko aukera dago. Argazkian, iaz etorri zen Josune Bereziartu.



## LORATEGIAK, NONAHI.-

Bilboko Udalak nazioarteko lorategi lehiaketa antolatu du eta azken asteotan gure kale bazter batzuetan ikusgai izan dira. Besteak beste, Santutxun, Uribarri eta Otxarkoaga aldean -argazkian- ipini dituzte. Hala ere, horiek ez dute saririk eraman.



## ANTENEN KONTRA, TXURDINAGAN.-

Sakelako telefonoen antenen kontrako protestak ez dira Santutxura mugatzen. Azkenaldion ugariak dira Txurdinaga aldean antena horiek salatzen dituzten kartelak. Antza denez, inguruko Adoratrices izenekoaren komunitan holako bat jartzekotan dabilta.

## Santutxuko jaiak, uztailaren 14tik 22ra

Musika, antzerkia, kirola, gastronomia, txosnak eta giro ona nagusituko dira

*Karmen egunaren inguruan, urtero lez, bitartean auzo horretako kale kantoietan festa giroa nagusituko da. Txosnak, topaleku bihurtuko dira aurton be. azken urteotako legeari jarraiki, Basarraten paratuko dituzte.*

Lerro hauek idazterakoan Santutxuko jaietako egitaraua itxekotan zegoen Jai Batzordea. Dozena bat elkarrek egiten dute lan auzoko jaiak aurrera ateratzeko. Kirol taldeak, kultur eta gazte elkarteak, erakunde eskultzaleak, emakumeak,... denek jarduten dute uztailaren erdialdean Santutxu festetan murgil dadin.

Aurton be txosnak Basarrateko landan ipiniko dituzte, arbolen gerizan. Hamar bat izango dira han-hemenka barreatuta alderdi horretan ordu gozok emateko aukera eskainiz. Jaiak hasi uztailaren 14ko iluntzean hasiko dira Basarraten irakurriko duten pregoiarekin. Hori baino lehen, koadrilek bazkaria egingo dute eta poteo sortzaile baten ondoren segizioan joango dira Karmelotik Basarratera.

Egitarauari erreposoa ematerakoan, musikatik hasiko gara. Aurton beste urte batzuetan baino gehiago izango dira saioak. Alde batetik, lehenengo larunbatean bertan, Feos pero Majos eta Beste Bat taldeek joko dute Basarraten. Biharamunean, domekan, Karmen egunaren bezperan, beste kontzertu erakargarri bat Basarraten: Oliba Gorriak eta Itziarren Semeak.

### ACDC

Asteartean bertoko taldeen kontzertua izango da eta ostegunean, aldiz, playback lehiaketa, zortzi eta erdietatik aurrera. Barikuan jaietako hitzordurik multzotsuena helduko da: Naiz Roxa, Neubat eta The Bon Scott Band. Azken horrek ACDC talde mitikoaren bertsioak egiten ditu. Hala kontzertu hauek nola larunbateko berbena Basarraten izango dira. Adineko jendearentzat ere Basarraten beste berbena bat egingo dute uztailaren 16an, zazpi eta erdietan hasita. Eta musika atala itxeko, azken larunbatean rock maratonia izango da Karmelon arratsaldeko bostetatik bederatzietara.

Umeei dagokienez, euren eremua



zaz plaza ibiliko dira 'kalea gureganatu' ideia berriarekin, kaleak eta plazak herritarrentzat eska-tzeko alegia.

### KIROLAK

Kirol kontuetan aste osoan zehar Briñas eskolan egingo den futbito txapelketa nabarmendu daiteke. Baita ere asteazkenean Hockey pistan nesken futbito lehiaketa antolatuko dutela. Izena emateko, deitu telefono honetara: 658729911. Seietan hasiko da.

Bestalde, gastronomiak leku garrantzitsua erdietsiko du beste behin. Domekero, txapelketa bana: lehenengo domekan marmitako eta bigarrenen bakailao lehiaketak. Asteartean, osteran, paella. Denak Basarraten eta, ohi bezala, parte hartzaile askorekin.

Errepassoari amaiera emateko, koadrilen ibilerak. Lehenengo eguneko gain, igandean ginkana, astelehenean herri kirolak,... egunero-egunero zer edo zer edukiko dute bezperako ajea kentzeko.

Hau guztiau eta beste hamaika kontu, Santutxun uztailaren 14tik 22ra. Ez galdu!

**Urtzi Urmitikoetxea**  
"Mugitzen eta abertzarrok jasotzen ditut koadrekoak"  
Uztidazu karmine bertzen

**Miren Agur Meabe**  
"Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago"

**Eladio Montiel**,  
Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

**Mikel Alvarez**,  
mahatsorri bat Everesteko tontorrean

**Imanol Agirre**,  
"Bodu noizbitan txapela jarazkita esperantzarik"

# bertan

## MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: .....

Herria: ..... Herrialdea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

### DOHAIN

Sinadura

## TRESDEDOS (1167 M.) CILIEZA (VALLE DE MENA)


Cilieza, Mena ibarreko herri txikiatariko bat da. Kotxez joaten bagara Villasana de Menara heldu baino lehen errepidean bertan Mercadillo herria dago. Ezkerretik Artzi-niagara joaten den errepide-tik, sartzean, eskuinan dagoen beste errepidetik, hau ere asfaltatuta, baina estu xamar Ciliezaraino (4 km.) joango gara.

Orain oinez. Ciliezako azken etxe ondoan dagoen pista batetik sartuko gara. Bost minutu geroago bi larra artean egurrezko ate txiki bat aurkituko dugu. Hemen hasten da bidea, lehenengo nahiko estua, sasiz eta zuhaitzez ia estalita, baina laster zabalduko da. Bide harritsu eta bihur-gunetsutik igoko gara Complacera edo Relloso tunelera heldu arte. (Ordu bat).

Tuneletik irtetean eskuinetik bidexka bat igotzen da. Aurrez aurre mendi txiki eta gogor bat ikusten da. Ez gara bere tontorrera igoko baizik eta lehen aipatu bidexkatik aurrera eginez, pinudiaren ondoan eta mendi-aldean zehar jarraituz, lepo batera helduko gara.

Amildegia ondoko bidexkatik pagadi handi batera heldu arte igoko gara. Ondoren apur bat beherantz egingo dugu beste lepo bateraino.

Bertatik ikusten da, mendiko lehen atzamarrean, beste bidexka izugarri bat ia zuzen nola igotzen den. Bidezidor horretatik erdiraino bakarrik igoko gara eta ondoren bere erdiko mendi-aldetik jarraituz hirugarren lepotik eta bigarren atzamarretik igaroko gara.



Hiru Atzamar (Tresdedos) mendian gaude. Goitik behera ikusi dugun horma bezala, bere erdian dagoen pasabide batetik igoko gara. Hemendik gorantz eta eskuinerantz tontorrera iritsiko gara laster (1 eta ordu).  
Guztira bi ordu eta laurden.

**IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO**

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro  
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navagalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

O-P-E: 0139/97  
☎ 94 412 82 74

**Mesón GURETXE**

Santutxuko poteo gunean

# IKASLE ABERTZALEAKEN ESKOLA IBILTARIA SANTUTXUN AMAITUKO DA

Hiru egunez gazteek euren intereseko klaseak hartuko dituzte



*Ikasle Abertzaleak aurtengo Eskola Ibiltaria Galdamesen hasi eta Santutxun amaituko da. Uztailaren 12a eta 14a bitartean Enkartazioetatik Begoñako errepublika zaharreraino etorriko dira, lekuan lekuko lezioak ikasten.*

**ESKOLA IBILTARIA**  
UZTAILAK 12,13,14 '07  
GALDAMES-SANTUTXU

izena emateko:  
[www.ikasleabertzaleak.org](http://www.ikasleabertzaleak.org)

**EUSKAL HERRIA DA GURE ESKOLA**

Hego Euskal Herriko irakaskuntza ertainetako zein unibertsitateetako ikasle askoren erakunde da Ikasle Abertzaleak. Azken urteotan Eskola Ibiltaria antolatu izan du uda aldean, gazteok lekuan lekuko errealitateetara hurreratuz gure gizartea hobeto ezagutzeko parada eduki dezaten.

Aurtengo Eskola Ibiltaria Galdamesen hasiko da La Arboleda, Trapaga, Urtuella eta Sestaon geldialdiak egin ostean, Santutxun amaituko da uztailaren 14an.

## SANTUTXUN

Esan legez, Eskola Ibiltariak leku bakoitzean gai bana dauka hizpide. Bada, Santutxuko bisitaldiak jai herrikoiak aztertze-ko aukera eskainiko die ikasleei. Izan ere, asteburu horretan auzo mahatsorria festetan bete-betean murgilduta egongo da.

Ikasle Abertzaleak erakundeak jakinarazi duenez, Santutxun "gauzak egiteko beste modu bat badela ikusiko dugu, partaidetza bultzatuz, herriari, herritarrei hitza eta erabakia emanez proiektuak gauzatu daitezkeela".

Jakina denez, Bilboko auzo gehienetako jaiak -Santutxukoak tartean- herritarrek eta elkarteek osatutako jai batzordeen lanari esker ospatzen dira.

## BESTE URRATSAK

Santutxura ailega baino lehen, ikasleek hamaika ikas-kizun dauzkate zain. Eskola Ibiltariko aurtengo gai nagusia gaur egungo sistema ekonomikoaren gaineko ezagutza eta ulermena izango da, kapitalismoaren



## Ikasle mugimenduaren emaitza

Ikasle Abertzaleak 1987an sortu zen, 80ko hamarkadako ikasle mugimenduaren emaitza gisa. Iruñeko Txantrea auzoan jaio zen eta harrez gero oso parte hartze aktiboa eduki du hala irakaskuntza ertainetan nola unibertsitatean.

Azken urteotan erakundeak uda sasoi aprobatxatu izan du gazteei bestelako eskolak eskaintzeko. Horrela jaio zen Eskola Ibiltaria, beti ibilbide baten inguruan 'ikasgaiak' harilkatuz. 2005ean, barbarako, Karrantzatik Balmasedaraino joan ziren. Azken finean, Ikasle Abertzaleakeko arduradunek jakinarazi dutenez, "euskal ikasleriak nahi, behar eta aldarrikatzen duen eskola eredia praktikara eramaten dugu. Egun inposatzen zaizkigun hezkuntza sistema arrotzek praktikara eramaten dituzten eskolak iraultzen ditugu hiru egunez. Euskaraz biziz, ingurunearekin harreman osoz gu geu gara ikasle eta irakasle. Ezagutza hurbila bultzatuz eta balore askatzaileetan biziko dugu Eskola Ibiltaria".

kunde eta elkarteak mahai baten inguruan batuko dira Ezkerraldeak pairatzen dituen arazo nagusien berri eman dezaten: desindustrializazioa, bazterketa, kutsadura, ghettoak,...

## ITSASADAR

Azkenik, Eskola Ibiltariak lehorretatik uretara egingo du salto. Hobeto esanda, barku batera. Izan ere, gazteok itsasontzian egingo dute Ibaizabal ibaitik gora Bilboraino. Horrela, ibarretako eraldaketak bertatik bertara ikusiko dituzte, baita Bizkaiko ekonomiaren aldaketa sakona ere, sasoi baten industria alderdia zena gaur egun zerbitzu hiria bihurtu dute eta.

garapen historikoari erreparatur. Horrela, Galdamesen bertan, abiatze puntuan alegia, eta gertuko La Arboleda eta Trapaga aldean meatzetako harreman ekonomikoaren sistema aztertuko dute. "Sinpleak zirenez, modu errazean ikusiko dugu pertsonak beste pertsonak zelan zapaltzen dituen", azaldu dute antolatzaileek. Horretarako, interpretazio gunera joko dute.

Bigarren urratsa Serantes mendian egingo dute. Bertatik, Abra osoa ikusten da eta horrela Ibaizabaleko bokaleko garapen eredia begien aurrean edukiko dute. "Gaur egungo sistema ekonomikoaren proposamena garbi erakusten du Bilboko itsasadarak", azaldu dute. Proiektu berriak zertan diren eta orain arteko hondamendi ekologikoaren tamaina baloratze-ko aukera edukiko dute ikasleek.

Hurrengo geldialdia Sestaon egingo dute gazteok. Bertako era-

# DEABRU BELTZAK 'BANDE DEPLACÉE' IKUSKIZUNAREKIN ITZULI DIRA

Perkusioak eta su artifizialek  
ardatz gisa jarraitzen dute

*Deabru Beltzak antzerki konpainiak bere azken lana Miarritzen, kaleko artearen festibalean estreinatu zuen maiatzean. "Bande deplacée" izena dauka antzezlan berriak. Berriz ere Deabru Beltzak taldeko aktoreak hiriko kaleetan zehar ibiliko dira.*

Testua: Ane Zabala Argazkiak: Deabru Beltzak

Lan berri hau "Les tambeurs de feu" eta "Les diables nuars" aurrekoen jarraipena da. Garbitxu izan da zuzendaria. Mahatsorriak kontatu digun bezala aurreko bietan ikasitakoarekin antzezlan berria sortzen saiatu dira. Aurreko antzezlanetan ikasitakoa islatzen dute, beraz, 'Bande deplacée' en.

Hilabete bat da antzezlan estreinatu zutela eta lortutako harrerarekin pozik daude: "Urte bete antzezlan prestatzen egon ostean pozik gaude harrera eta emaitzarekin; gainera, Miarritzen estreinakoa oso ondo joan zen; jaialdia oso indartsua da eta naba-

**'Bande deplacée'  
antzezlan  
Euskal Herrian  
zehar egingo  
dute.**

ria da kale ikuskizunak maite dituztela".

Antzezlan berriko irudiak Judas Arrieta artistak egin ditu. Aurreko antzezlanetako estiloa jarraitu du baina oraingo honetan samuraiz

osatutako mundua sortu du, manga irudiek presentzia dutela. "Duela urte batzuk Judas Arrietaekin lan egiten hasi ginen, eta berriz ere aproposa iruditu zaigu berarekin elkarlanean aritzea ikuskizun honen irudia sortzeko".

#### ERRITMOA

Perkusioa eta su artifizialak ikuskizunaren elementu garrantzitsuak dira. Oraingo honetan munduko musika estilo asko entzungo dira antzezlanean, beti ere erritmoa eta perkusioaren oinarriaz. Aurrekoetan bezala, zuzenean jotzen dute musika 'Bande deplacée' en parte har-

bertin

tzen duten zazpi aktoreek.

Argiari dagokionez, harrigarri eta ikusgarriak dira erabiltzen dituzten su artifizialak. Horretarako urruneko kontrola erabiltzen dute. Haietako zenbait gainera, su eta argiak, aktoreak berak soinean eramaten du. Puntako osagarriak, beraz, ikuskizun berri honetarako antzerki taldeak erabili dituenak.



'Les tambeurs de feu' eta 'Les diables nuars' en antzezlanekin mundu osoan zehar ibili dira. Kontinenterik kontinente eraman zuten lana. Baina oraingo honetan atsedean pixka bat hartu nahi dute Deabru Beltzak taldeko aktoreek. Hori dela eta urte honetan 'Bande deplacée' antzezlan Euskal Herrian zehar egingo dute. "Bezero asko dugu mundu osoan zehar, beraz ezin dugu merkatu hori baztertu. Baina datorren urtean ekingo diogu kanpoko jirari", adierazi digu Garbitxuk.

#### LEKEITION

Aukera asko izango da uda honetan Euskal Herrian antzezlan berria ikusteko, uztailaren zazpian Lekeitioko kale antzerki jaialdian izango dira, uztailaren 20an Urdulizen eta 21ean Santurtzin, esaterako.


## ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

## Kafe



## Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO

Telf. 94 411 99 33

## GOJIAN S.C.L.

### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

## ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

# horoskopoa

- Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**  
Markesaren bizimodua egiten ei dozu. Egia ete da, jaun/andra txit agurgarri hori?
- Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**  
Basurdeak, basauntzak, oreinak, azkonarrak, ogigaztaiak... animaliez inguratuta zagoze ala?
- Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**  
Txutxumutxu, zurrumurru,... u-z betetako berba guztiak zuretzat eginda dagoz ala?
- Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**  
Errondak pagetan ona zara, bai horixe. Zorionak, gaztetxo hori!
- Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**  
Mendi ganera igoteko, lelengo-lelengo bidean gora hasi behar dozu. Zuk etxetik urten be ez dozu egin.
- Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**  
Uda aldean 'Kali' jainkosa gurtzen daben horietakoa zara? Thug bat, orduan.
- Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**  
Zuretzat okela eta guretzat hazurra? Ez da ideia ona hori, ez horixe!
- Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**  
Funtzionario guztiak hondartzara bazoazie, badakizu: bikini saltsa, Eusko Jaurlaritzan!
- Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**  
Zure ligeak, gitxi baina onak. Erromantikoa, gaztetxoa!
- Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**  
Txiripaz baina gauzak ondo urten jatzuz. Zorionak. Ea hurrengoan zu zeuk be zeozer egiten dozun...
- Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**  
Sorginari kontrarik ez egin. Arrazoia deko eta kito.
- Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**  
Baten batek begizkoa jo dosku. Azken urte bion ostean, orain kandidatu hauek! Lagunduuuu!

# agenda

**UZTAILAK 14-22**  
SANTUTXUKO JAIAK

**UZTAILAK 20**  
HERRIRA PLATAFORMAREN  
MANIFESTAZIOA.

**UZTAILAK 15**  
PAGOETA (714 M). MENDI IBILALDIA.  
AIA (GIPUZKOA). SANTUTXUKO  
MENDIZALE TALDEA.

**UZTAILAK 22**  
MADALENA EGUNA. ITXAS ERROMERIA  
ELANTXOBE, MUNDAKA  
ETA BERMEON.

**UZTAILAK 21-31**  
SAN IGNAZIOKO JAIAK.

